BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

1447

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 21ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordearen Akordioa, zehazki, Defizita zuzentzeko, aurrekontu, zerga eta finantzen arloetarako presazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2001 Errege Dekretuari buruzkoa.

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den akordio hau egin ondoren, eta artikulu horren c) letran ezarritakoarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Honako akordio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ematea argitara: Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordeak hartutakoa, zehazki, Defizita zuzentzeko, aurrekontu, zerga eta finantzen arloetarako presazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2001 Errege Dekretuari buruzkoa. Akordio hori ebazpen honen eranskinean jasotzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 21a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEA

Estatuko Administrazioaren eta euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Arteko Aldebiko Lankidetza Batzordearen Akordioa, honako dekretu honi buruzkoa: defizita zuzentzeko, aurrekontu, zerga eta finantzen arloetarako presazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2001 Errege Dekretua.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordeak, 2012ko martxoaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuten:

1.– Defizita zuzentzeko, aurrekontu, zerga eta finantzen arloetarako presazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2001 Errege Dekretuko 2.hiru artikuluari dagokionez, sortutako ezadostasunak ebazteko negoziazioei ekitea.

2.– Lantalde bat izendatzea, Aldebiko Lankidetza Batzordeari konponbide bat proposatzeko.

3.– Urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, jakinaraztea akordio hau Konstituzio Auzitegiari, 2012ko martxoaren 31 baino lehen; eta horretaz gain, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Madril, 2012ko martxoaren 7a.

Ogasun eta Herri Administrazioko ministroa,
CRISTÓBAL MONTORO ROMERO

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.